



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 23a

25. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, “Mugi” garraio-txartelari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Elizak immatrikulatutako ondasunei buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (3. or.).
- Galdera, despopulazioari aurrea hartzeko Nafarroako Gazteriaren Institutuaren neurriei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, patologia kronikoa duten pazienteen txertaketari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (4. or.).
- Galdera, bidesari-sistema bat ezartzeko Nafarroa proba pilotu gisa erabiltzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, terrorismoa goraipatzeari dagokionez indarrean dagoen legeria gogortzeko aukerari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, osasun-azpiegiturak handitzeko edo berriak eraikitzeko 2021ean eginen diren obrei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- Galdera, prentsa-askatasunari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroan pobrezia-arriskua handitzeari buruz Intermon Oxfamek egindako txostenari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako ahalegin fiskalari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroan bakarrik dauden adingabeei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, etxebizitzaren alokairuaren Nafarroako prezioei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (8. or.).
- Galdera, errepideetan presako inbertsio plan bat abian jartzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, erlijio-irakasgaiaren irakaskuntza-orduak murriztzeari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (9. or.).

- Galdera, "45 años de evolución económica, social y empresarial de las Comunidades Autónomas en España (1975-2020)" txostenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Next Generation funtsen gobernantzari buruzkoa. Uxue Barcos Berruezo andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Mediterraneoko erreskateekiko Nafarroak duen konpromiso-mailari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Gobernuak indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko duen konpromisoari eta egiten ari den lanari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, pasa den asteburuko txertaketari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, "Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde" herritarren ekimenari buruzkoa. Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (13. or.).

**I SAILA:****Planak, komunikazioak eta programak:**

- Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024). Ebazpen-proposamenak aurkezteko epea (14. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, “Mugi” garraio-txartelari buruzkoa.****MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, “Mugi” garraio-txartelari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan “Mugi” garraio-txartel erabiltzeko aukerari dagokionez, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

- Zertan da prozesua?

Iruñean, 2021eko otsailaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

**Galdera, Elizak immatrikulatutako ondasunei buruzkoa.****AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Elizak immatrikulatutako ondasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakari María Chivite Navascúesek otsailaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Behin ezagututa Elizak immatrikulatutako ondasunen zerrenda, zein da herritarrek eta udalak jarraitu beharreko prozedura, haiek berreskuratze aldera?

Iruñean, 2021eko otsailaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, despopulazioari aurrea hartzeko Nafarroako Gazteriaren Institutuaren neurriei buruzkoa.**

*CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, despopulazioari aurrea hartzeko Nafarroako Gazteriaren Institutuaren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blascok, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri garatzen ari da Nafarroako Gazteriaren Institutuak Nafarroan despopulazioari aurrea hartzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

## **Galdera, patologia kronikoa duten pazienteen txertaketari buruzkoa.**

*ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, patologia kronikoa duten pazienteen txertaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du,

Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kopuruaren eta aniztasunaren aldetik txerto gehiago iristearen arabera, txertatze-estrategia egokitu eta berrikusi egiten da: egoitzak, mende-kotasun handikoak, profesional sanitario eta soziosanitarioak... Orain adin-taldeak eta beste lanbide batzuk. Ikusi dugunez, harridurarekin ikusi ere, gaixo kronikoak ez dituzte izaera horrekin kontuan hartu.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Gobernuak bere kezka helarazi al dio Lurraldearteko Kontseiluari, patologia kronikoa edo osasun egoera jakin batzuk dituzten pazienteen txertaketa goiztiarra dela eta, ebidentzia zientifikoa dagoenean haiek kutsatzeko kasuan COVID larria garatzeko arrisku handia izateari buruz?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

## **Galdera, bidesari-sistema bat ezartzeko Nafarroa proba pilotu gisa erabiltzeari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, bidesari-sistema bat ezartzeko Nafarroa proba pilotu gisa erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroa erabiltzen ari al dira proba pilotu gisa gure herrialdeko errepide guztietan bidesari-sistema bat ezartzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

---

## **Galdera, terrorismoa goraipatzeari dagokionez indarrean dagoen legeria gogortzeko aukerari buruzkoa.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, terrorismoa goraipatzeari dagokionez indarrean dagoen legeria gogortzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egokitzat jotzen al duzu lege indarduna gogortzea, ekidite aldera biktimak umiliatuak izatea espetxetik ateratzen diren terroristen harreraren bidez?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **Galdera, osasun-azpiegiturak handitzeko edo berriak eraikitzeko 2021ean eginen diren obrei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, osasun-azpiegiturak handitzeko edo berriak eraikitzeko 2021ean eginen diren obrei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021ean zer obra eginen ditu Osasun Departamentuak osasun-azpiegiturak handitzeko edo berriak eraikitzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, prentsa-askatasunari buruzkoa.**

*CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, prentsa-askatasunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190, 191 eta 192. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu honek sinesten al du prentsa-askatasunean eta kazetaritzako profesionalen jardun askean, derrigortzerik eta presiorik gabekotan?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Nafarroan pobrezia-arriskua handitzeari buruz Intermon Oxfamek egindako txostenari buruzkoa.**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan pobrezia-arriskua handitzeari buruz Intermon Oxfamek egindako txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuak Intermon Oxfamek egindako txostenari buruz, zeinak Nafarroa hirugarren tokian ezartzen baitu pandemian zehar pobrezia-arriskuan diren pertsonen hazkunde erlatibo handiena izan duten erkidegoen artean?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## **Galdera, Nafarroako ahalegin fiskalari buruzkoa.**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako ahalegin fiskalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer datu zehatzetan oinarritzen zara adierazten duzunean gaur egun Nafarroa dela "ahalegin fiskal txikiena egiten duen erkidegoa", joan den asteazkenean Gobernu Bilkuraren ondoko prentsaurrekoan esan zenuen bezala?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Nafarroan bakarrik dauden adingabeei buruzkoa.**

### *MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan bakarrik dauden adingabeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **GALDERAREN TESTUA**

Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilari Eduardo Santos jaunak parlamentu honen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2019-2023 legegintzaldia hastean migrazioaileen arreta Eskubide Sozialetako Departamen-

tutik Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentura eskualdatu zen.

Azken horrek Karibu zerbitzua (migratzaileei harrera eta laguntza ematea) eta Ayllu zerbitzua (Kulturen arteko bizikidetzaren hobetzea eta arrazismoaren eta xenofobiaren aurka borrokatzea) garatu ditu.

Bakarrik dauden adingabeei, ahuldade handiko talde gisa, zerbitzu horien bidez ematen zaie arreta.

Adin-nagusitasunera iristean gazte horiek "adingabe" izaera galdu eta arazo berriei egin behar diete aurre. Haietako bat, gizarteratzearena eta laneratzearena, ezinbestekotzat eta funtsezkotzat jo behar dugu.

Zer balorazio egiten du Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak bakarrik dauden adingabeek Nafarroan jasotako arretari buruz eta adin-nagusitasunera iristean gizarteratzeari eta laneratzerari begira izandako prozesuei buruz?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Galdera, etxebizitzaren alokairuaren Nafarroako prezioei buruzkoa.**

### *MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, etxebizitzaren alokairuaren Nafarroako prezioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernu bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, 2021eko otsailaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten du zure departamentuak Nafarroan etxebizitzaren alokairuaren prezioak igozteari buruz, eta zer neurri garatu behar ditu igoera hori geldiarazteko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui



## **Galdera, errepideetan presako inbertsio plan bat abian jartzeari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, errepideetan presako inbertsio plan bat abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak aurreikusi al du errepideetan presako inbertsio plan bat abian jartzea?

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, erlijio-irakasgaiaren irakaskuntza-orduak murrizteari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, erlijio-irakasgaiaren irakaskuntza-orduak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gaurkotasuneko galdera hau egiten du, Parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, iragan otsailaren 18an eginiko bilkuran, erabaki proposamen bat onetsi zuen, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntzaren ordu-zama LOE/LOMLOEk ezartzen duen nahitaezko minimora murriztu dezan.

Legegintzarako programa-akordioa oso zehatza da horri dagokionez.

Bertan jasotzen da unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetan erlijio-irakasgaiaren irakaskuntzaren ordu-zama murrizteko konpromisoa.

Hori dela eta, Hezkuntzako kontseilari Gimeno jaunari galdetzen diogu:

Nafarroako Gobernuak noiz eta nola beteko du unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-maila guztietan erlijio-irakasgaiaren irakaskuntzaren ordu-zama minimora murrizteko konpromisoa eta zein ikasturtetan gauzatuko da murrizketa hori?

Iruñean, 2021eko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Galdera, "45 años de evolución económica, social y empresarial de las Comunidades Autónomas en España (1975-2020)" txostenari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, "45 años de evolución económica, social y empresarial de las Comunidades Autónomas en España (1975-2020)" txostenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dadin eta Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan 2021eko otsailaren 25eko Osoko Bilkuran:

Bat al zatoz lehendakariorde Remírez jaunak iragan otsailaren 17an, Merkataritza Ganberak eta Espainiako Ekonomialarien Kontseilu Nagusiak eginiko "45 años de evolución económica, social y empresarial de las Comunidades Autónomas en España (1975-2020)" txostenaren edukia ezagutu ondoren, eginiko adierazpenekin?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Next Generation funtsen gobernantzari buruzkoa.**

### *UXUE BARCOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barcos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Next Generation funtsen gobernantzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Parlamentuaren heldu den otsailaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Tokiko entitate eta erakundeek Next Generation funtsen gobernantzari buruzko zehaztasun handiagoa eskatzen jarraitzen dute.

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak zer ekintza aurreikusi ditu egoera hori arintzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

## **Galdera, Mediterraneoko erreskateekiko Nafarroak duen konpromiso-mailari buruzkoa.**

### *AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Mediterraneoko erreskateekiko Nafarroak duen konpromiso-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 25eko Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Hamar egunetako ikuskapen sakonen ondoren, Aita Mari erreskate-ontzia SAR eremuan dago pertsonak erreskatatzen, baina ohiko arazoak ditu pertsona horien lehorreratze segurua lortzeko.

Norainoko konpromisoa du Nafarroak Europako gobernuak egin beharko luketen lana egiten ari diren erreskate-taldeekin?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Gobernuak indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko duen konpromisoari eta egiten ari den lanari buruzkoa.**

*RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Gobernuak indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko duen konpromisoari eta egiten ari den lanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak otsailaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zein da zure Gobernuak duen konpromisoa eta egiten ari den lana indarkeria matxistaren aurka borrokatzeko?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## **Galdera, pasa den asteburuko txertaketari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, pasa den asteburuko txertaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Pasa den asteburuan, soilik 244 txerto jarri ziren larunbatean eta 547 igandean. Zer dela-eta?

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, “Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde” herritarren ekimenari buruzkoa.**

### *HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko otsailaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetu dadin Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkezturiko galdera, “Minority SafePack-miloi bat sinadura Europako dibertsitatearen alde” herritarren ekimenari buruzkoa. Galdera 2021ko

urtarrilaren 26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00031).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko otsailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**I saila:**  
**PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK**

---

**Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendaria (2021-2024).**

*EBAZPEN-PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA*

Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2021eko otsailaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendariari (2021-2024) ebazpen-proposamenak aurkezteko epea 2021eko martxoaren 5ean bukatuko dela, 12:00etan. Aipatu plana 2021eko urtarrilaren 22ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



